

URUMEA ETA OARSOALDEA

Arturo Elosegi

Euskal Herriko ibaietako batzuek fama handi samarra dute naturzaleen artean: Errobi, Bidasoa, Leitzarán, Baias, Aragoi. Horien aldean, Urumea izenak garai bateko kutsaduraren usaina dakarkie batzuri, Zurriolako hondartzaren ondoko ur-lasterraren hotsa beste zenbaiteri. Interes gutxi, alegia. Baina Urumea hori baino askoz gehiago da, galdetu bestela Hernani eta Goizueta aldean. Bertako biztanleek ez dute inoiz ibaian bainatzeko ohitura galdu, eta horrek asko esan nahi du. Zuk berdin egin ote dezakezu zure etxe inguruko ibaian?

Ur garbia ez ezik, Urumeak garrantzi aparta du, haren arroan baitaude Euskal Herriko ingurune naturalenetako batzuk. Euskal Herri osoarentzat Urumea altxorra dugu. Eta zertara dator hau OARSO aldizkarian? Oso erraza. Erreterriak eta Oartzunek badute altxor horretan parte zein ardura, Urumeako arroaren zati bat beraien lurretan baitago, eta egun geratzen diren inpaktu nagusietako bat Erreterriako udalarena baita.

Urumeako altxorrek gorabeherak izan ditu, noski. Duela mende bat Artikutzako urak oso kutsatuta zeuden, eta horrek behartu zuen Donostiako udala haran osoa erostera, ur garbia izateko modurik egokiena arro osoa txukun kudeatzea baita. Garai hartan jende asko erokeriatzat hartu zuen Donostiak deustarako balio ez zuen mendi bat erosten halako dirutza gastatu izana. Baina kudeaketa ezin txukunago baten ondorioz, Artikutza behinolako inpaktuetatik errekuiperatzen joan da, inguruko eremu gehienak andeatzen jarraitu dugun heinean. Gaur Euskal Herrian hobekien kontserbatutako

lekuen artean dago Artikutza, eta urik onena ezezik, biodibertsitatea gainezka gordetzen du.

Artikutza ez da Urumean hobetu den leku bakarra. Duela zenbait hamarkada, Ollingo meak sekulako eragina zuen Goizuetatik gora, eta Hernanitik behera industriak eta herrietako hondakinek Urumea estolda bihurtzen zuten. Gaur inpaktu horiez inor gutxi gogoratzen da, eta galdu genituen zenbait espezie berreskuratzen ari gara, adibidez izokina eta ur-satorra. Pozgarria da naturak sendatzeko duen ahalmena ikustea.

UR-SATORRA, URUMEAKO ALTXORRA

Ur-satorra edo muturluze piriniarra satorraren familiako animalia txikia da, erreka eta ibai garbi eta lasterretan bizi dena. Pirinioen bi aldeetan ez ezik, espezie hau berez Iberiar Penintsulako iparralde osoan ere bizi zen, Portugaldik Kataluniaraino. Gaur, ordea, haren populazioak gainbehera doaz. Hain animalia txikia izanik eta hain erreka hotzetan bizirik, bizimodu frenetikoak darama ur-satorrak, sekulako xomorro pila bilatu eta jan behar baitu hotzez hilko ez bada.

Urumean ere ur-satorrak gainbehera jasan du, Urruzuno, Latxe eta beste hainbat errekatatik desagertu baita. Iturburuetan, eta bereziki Artikutza aldean, populazioa oraindik indarrean dago, ordea. Zergatik ez ditu, orduan, Urumearen arroko beste erreka on eta garbi horiek berriro kolonizatzen? Erreka gehienak zentral hidroelektrikoek hartuta daudelako. Ur-sator gaztea

leku berrien bila doala presaren batera iritsitakoan, zein bide hartuko du, erreka ia agortua, edo urez gainezka doan kanala? Bigarrena noski, ez baitaki kanalaren buruan turbina hilgarria dagoela.

Hau gertatu izan da, esate baterako, Añarbeko errekan. Garai batean ur-satorra bizi izan da zen bertan, baina azkenak hil egin ziren eta berririk ez zen Artikutzatik iristen. Hain zuzen, Gipuzkoan urte askotan ikusitako azken ur-satorra 2009an ikusi zen Añarbeko kanalean, turbinarantz igerian zihoala. Zorionez, duela gutxi banakoren batzuek lortu dute Artikutzatik Añarbera iristea, eta orain bertan badago populazio txiki bat. Hori kontserbatzea guztion ardura da.

Bainatzeko eta arrainak hazteko ez ezik, Urumeako urek sekulako garrantzia dute. Izan ere, gipuzkoarren heren batek bertatik edaten du, bereziki Añarbeko urtegitik. Urtegi hau eraiki zenez geroztik ez da ur-hornidura arazorik izan Donostialdean. Kantitatea soilik ez, Añarbek kalitatez bikaina den ura biltzen du, hain zuzen, arroaren zatirik handiena, Artikutzakoa, ustiatzen ez diren baso helduez estalita baitago. Hauxe, baso helduena, da ur garbia izateko formula magikoa.

Baso guztiak ez dira, ordea, berdinak. Ustiatzen diren basoetan, zuhaitzak moztean zein pistak egitean, lurra galtzen da eta lur horrek lohitzen ditu gure ibai gehienak. Konpara itzazu Artikutzako errekek eta inguruko beste edozein erreka euria gogor ari duen egunen batean. Artikutzakoak garden, besteak uher ikusiko dituzu, arroan ematen den higaduraren arabera.

Basogintza, hortaz, jarduera gakoa da biodibertsitatearen kontserbaziorako eta, ur garbiaren ekoizpenerako. Oartzualdean badugu horren inguruan zertaz pentsatu. Izan ere, gure pinudi gehienak gaitzak jota usteltzen ari dira, eta ez dirudi espezie honek etorkizunik duenik gure eskualdean. Baina zer aldatuko dugu pinuak kendu ondoren? Urumean bertan bi eredu kontrajari ikus ditzakegu: Hernani eta Ereñotzuko zenbait lekutan eukaliptua aldatu dute, Artikutza inguruan bertako basoa berreskuratu. Begira itzazu bertako errekek egun euritsu batean, eta pentsa ezazu zer ote den komenigarriena.

Basoen kudeaketari dagokionez eredugarri izan da Erreterria eta Donostiako udalek Añarbeko baso



Ur-satorra, Urumea ibaiko eta Oarsoaldeko espezie mehatxatuenetakoa.

erreserba sortu izana, horrela Artikutzako eredia Añarbeko urtegiraino ekarriz. Añarbeko basoak oraindik ez du Artikutzakoaren kalitatea, baina horretara iristea denbora kontua da. Baina behin eskatzen hasita, zergatik ez dituzte Oartzunek eta Goizuetak Añarbeko urtegiara begira dauden lurak ere baso-erreserba horretan sartzen? Ez ote zen askoz ere logikoagoa etorkizunerako ezinbestekoa den baliagaia, ura, ziurtatzea, eta ez edonondik ekar daitekeen zura izatea gure herri-lurren kudeaketaren helburu? Oartzun eta Goizuetako udalentsat diru-sarrera pika bat murriztuko litzateke, baina hau ezin ote daiteke Añarbeko uren kontsorzioarekin konpondu?

URUMEAREN HILTZAILE “BERDEA”

Urumea ibaiak ur oso mehea darama. Urik gehienak ez doaz ibilguan barrena, baizik eta zentral hidroelektrikoetako kanaletan barrena. Energia hidroelektrikoa berriztagarria da, bai, baina ez uste den bezain berdea. Ezaguna denez, zentraletako presek izokin, amuarrain, aingira eta beste arrainen migrazioak eragozten dituzte. Hain ezaguna ez, baina berdin kaltegarria da, ordea, ibaian sortzen duen ur-eskasia, bertako bizidunek ezin baitute beti agorraldian iraun. Eta hirugarren kaltea kanalek eragiten dute. Urumeako

kanaletan ehundaka animalia itotzen da urtero, sagu eta azeri, ardi eta orkatz. Hori gutxi ez, iturburuetatik leku berrien bila doazen ur-sator gazteak askotan kanal horietan behera jaisten dira, eta turbinetan hil.

Eta zein da honen guztiaren ordaina? Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, lurralde historiko honetan 60tik gora zentral daude, eta guztien artean 100 Gigawatt ordu inguru ekoizten dute. Hori asko al da? Gutxi gorabehera 4 haize-erota berrik sortzen dutena adina. Hau da, huskeria bat ekoizten duten zentralengatik gure ibai-sare osoa kaltetzen dugu.

Errudunak ez dira enpresa elektriko handiak soilik. Ereñotzuko zentrala Erreñterriako udalarena da. Foru Aldundiaren arabera, zentral honek 36.000 € besterik ez zuen ekoizten urtean, eta ez zen ekonomikoki errentagarria. Orain, gainera, urte pare bat daramatza geldirik, turbina hondatuta. Ez ote genuke, bada, hobe presa eraistea? Noiz arte jarraituko dugu berdetik hain gutxi duen jarduera horrekin?

UHOLDEAK, URUMEAKO LEZIOA

Azken urteotan uholde ugari izan da Hernani, Astigarraga eta Ergobia inguruetan. Horrelakoetan ohikoa denez, jendeak aurki topatu du erruduna: Añarbeko urtegiak ur gehiegi askatu duela, Foru Aldundiak ez dituela ibaiak behar bezala garbitzen, Loiola auzoan ibaia dragatu egin behar dela, denerako iritziak izan dira.

Kontuak, ordea, konplikatuagoak dira. Alde batetik, azken urteotan euria gero eta kolpe handiagotan egiten ari du, eta klima-aldaketaren eraginez, badirudi horrelako erauntsiak gero eta ugariagoak izanen direla. Beste aldetik, poliki bada ere, itsas-maila igotzen ari da. Eta uholdeak marea gorarekin topo egiten duenean sortzen dira kalte handienak. Ibaia dragatzeak, noski, ez luke egoera konponduko, txartu baizik, olatuak barrurago sartuko bailirateke.

Ereñotzuko presa eta zentralera doan kanala, oztopo eta tranpa hilgarriak, ibaiko zein lehorreko faunarentzat.



Klima-aldaketa eta itsas-mailaren gorakada nekez konponduko ditugu euskaldunok. Bada, ordea, uholdeen arriskua gutxitzeko modua: ibaitik urruntzea. Beheko argazkiari erreparatzen badiozu, ikusiko duzu Urumearen beheko aldean batez ere gauza bat aldatu dela: lehen baratzeak ziren lekuetan etxeak eta industriaguneak eraiki ditugula. Garai bateko uholdeek azak eta patatak hondatzen zituzten, gaur etxabeheak eta garajeak. Ibaiari berea den lekua itzultzen hasi beharko genuke. Ez da lan erreza, ez da kontu merkea. Baina Martutene inguruan egindako lanek erakusten dute bidea posible ez ezik, ezinbestekoa ere dela.

Urumeako lezioak, noski, ez du Urumearako soilik balio. Oarsoaldean ere badago zer hobetu uholdeen aurkako borrokan.

Esaera zaharrak dio urak ez duela izenik, errekek igarotzen den lekuko izena hartzen duela. Errekak izena bezala, urak ere igarotzen den lekuko

ezaugarriak hartzen ditu. Ingurunea zikin badugu, errekek bertako kutsadura hartuko du. Ingurunea kontuz zaintzen badugu, errekek ur garbi eta bizia ekarriko digu. Erreka eta ibaien kontserbazioa ez da soilik arrainak edo ur-satorrak mantentzeko nahia. Erreka da gure ingurunearen osasunaren adierazlerik argiena. Eta ingurune osasuntsua ezinbestekoa da bizimodu osasuntsu baterako, osasun fisiko zein buru-osasunerako. Gure ingurunea, azken batez, guztion artean egiten dugu.

Urumea ibaia Astigarraga inguruan, 1954ean (ezkerrean) eta 2011n (eskuinean). Errepara ezazu nola urbanizatu ditugun ibarrak. Benetan uste duzu uholdeak ibaia garbitu ez izanagatik sortzen direla? Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu kartografikotik hartutako irudiak.

